



## EREÑOTZU BERTSO AFARIA

### Bertso afaria larunbatean, Ur-Mia elkartean

Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariak ariko dira, eta txartelak salgai daude, 25 euroan. Bestalde, Mikel Peruarena ereñotzuarra 'Su zelaiak' liburua aurkeztuko du gaur, Donostian.

AFARI eder baten bueltan, bertso kantari ariko dira Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariak, larunbatean. Ereñotzuko Ur-Mia elkartean izango da bertso afaria, iluntzeko 20:30etan hasita. Txartelak, salgai daude dagoeneko, 25 euroan: Ur-Mia elkartean bertan eta Irrintzi tabernan.

#### Mikel Peruarenak liburua aurkeztuko du gaur

Su zelaiak liburua gaur aurkeztuko du, Mikel Peruarena idazle ereñotzuarra. Donostiako Liburutegi Zaharrean izango da, Mandas aretoan, goizeko 11:00etan.

Lehen Mundu Gerrak Euskal Herrian utzitako baitaila eta triskantzak kontatzen ditu liburua, Baionako Infanteriaren 49garren Errexi-menduaren barrutik. ||



Maialen Lujanbio eta Unai Agirre ariko dira larunbatean, Ur-Mia elkarteko bertso afarian.

## AXKETA TALDEA

### Kontzertu gaua gaztetxean, 'Axxketa fest' ospatzeko

Axxketa taldeak antolatuta, hiru kontzertu izango dira larunbatean, 22:00etan hasita, Kontrakantxa gaztetxean: Dirty Eyes, Eztanda eta Trifulka.

AXKETA mendi taldeak, festa antolatu du larunbat honetan. Plana, gaua musikaz betetzea. Eta horretarako, hiru kontzertu antolatu dituzte, gaueko 22:00etan hasita. Kontrakantxa gaztetxean izango da, Axxketa fest deitu dutena.

Hernaniko taldeen aldeko apostua egin du Axxketak, kontzertu sorta osatzeko.

Horrela, Dirty Eyes taldea izango da menuko aurreneko platera. Hernaniko bandak rock gogorra jotzen du, eta aurretik ere eman ditu kontzertuak gaztetxean.

#### Eztanda eta Trifulka, ondoren

Segidan, beste bi talderen kontzertua ere izango da

gaztetxean: Eztanda taldeak hartuko du txanda, eta Trifulka musika bandak emango dio itxiera, Axxketaren festari.

#### Kontsumizioetan bildutako dirua, Axxketari laguntzeko

Kontzertuak entzuteko, sarre- ra debalde izango da. Gaztetxean bertan, barra

jarriko dute, eta asmoa da, kontsumizioetan lortutako dirua, Axxketa mendi taldeari laguntzeko izatea.

Bildutakoarekin, ekintzak eta irteerak antolatzen jarraitu ahal izango du Axxketak, mendiarekiko zaletasuna haunditzen jarraitzeko. Animatzeko deia egin diete herritarrei. ||

## HERNANI'N MUSIK

### Sarrerak salgai, 'Neighbor' ikusteko

Neighbor bikoteak kontzertua emango du bihar 20:00etan, Biterin, Hernani'n Musik ekimenaren barruan. Maite Larburu hernaniarrak eta Josh Cheatham estatubatuarra osatzen dute Neighbor. Emanaldian bertan, Zela Trovke film laburra ere jarriko dute, Larburu protagonista dela. Sarrerak salgai daude Biterin, 7 euroan. ||

## DOBERA

### Bilera irekia, gaur

Gure Artean Euskaraz ekimenaren berri emateko, bilera irekia antolatu du Dobera Euskara Elkartek gaur. 19:00etan izango da, AEKren lokalean (Larramendi 11, behe). ||

## HERNANI ERABAKI

### Bilera gaur, Biterin

Hernani Erabaki parte hartze prozesuan, azken saioa egingo dute gaur, proposamenak aukeratzeko. 19:00etan izango da, Biterin. ||

## LOTERIA

### Elur Txoriko loteria eskuragarri

Elur Txori elkarteak, eskuragarri dauka dagoeneko eguberrietako loteria. Interesa duen edonor, jarri dadila harremanetan batzarkideekin. ||

### Odol emaileena, Portalondo estankoa salgai

Odol emaileek ere salgai daukate eguberrietako loteria, Portalondo estankoa. ||

## ERREMONTEA

### Barrenetxea, gaur

Binakako txapelketan, bigarren partidua jokatuko du Endika Barrenetxeak gaur, Juaristirekin, Ezkurra eta Ionon aurka. Beste hiru partidu izango dira, 16:00etan Galarretan: Juanenea-Zubiri/Seguro-la-Olazar; Urriza-San Miguel/Uterga-Etxeberria IV-Endika; Etxabe II-Aizpuru III/Matxin VI-Agirrezabala. ||

HONDAKINEN BILKETA  
"ZALANTZAK ARGITZEN"

# ORGANIKOA

MODU HONETAN JASOKO DA

BETI KUBO MARROIAN (Ez grisean)

Hernaniko  
Udala

>>

- Kuboaren barruan poltsarik gabe
- Kuboaren barruan poltsa konpostagarrian  
(ok compost zigilua duena)

- Poltsak herriko dendetan salgai daude.
- Zalantzak argitzeko edo materiala berritzeko (kirtanak, kuboak...)
- Hondakinen bulegoa. 943 337 000 / 900 840 090,  
atez-ate@hernani.net, Udaletxeko 2.solairuan.



☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURALDIA** **GAUR** Berdintsu jarraituko dugu. Laino gutxi egongo dira zeruan, eta giroa oso atsegina izango da. Temperatura altuak, egun osoan: Min.13° / Max.27°

**BIHAR** Giro eguzkitsua izango dugu. Beroa egingo du, eta oso laino gutxirekin jarraituko dugu. Temperatura berdintsu: Min.14° / Max.26°

(euskalmet)


## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**IGNACIO MARIA GONZALEZ SANCHO**  
 "MAMARI"  
 Naiz eta agur esan behar, beti barren barrenean gurekin izango zara.  
**IZEBAK: M<sup>a</sup> CARMEN ETA MARITXU; ETA LEHENGUSUAK**  
 Hernanin, 2014ko urriaren 30ean



**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 Gure artetik oa joanda gaude tristura betean hainbeste maite gendun anaia falta zaigu bat-batean. Zenbat lagundu izan gaituzun etxean nahiz erbestean bihotza ere eman diguzu beti hutsaren trukean. Orain hutsune galanta dugu gure bihotzen artean.  
 Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **SEIETAN**, Ereñotzuko **ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
**HIRE ANAIAK: KEPA, ANGEL, JOXEMARI ETA ROXARIO. Adiorik ez Ramon.**  
 Hernanin, 2014ko urriaren 30ean



**IGNACIO MARIA GONZALEZ SANCHO**  
 "MAMARI"  
 Atzo hil zen, 53 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
**- Goian Bego -**  
 Bere emaztea: Marisol; alaba: Nerea; gurasoak: Felipe eta Marisaru; ezkon gurasoak: Patricio (\*) eta M<sup>a</sup> Carmen; anai-arrebak: Manolo eta Pili, José Ángel eta Arantxa; iloba: Josu; ezkon anai-arrebak: Juan Carlos eta Marian, Juan Mari eta Solé; osabak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.  
 Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
**Hernanin, 2014ko urriaren 30ean**  
 Helbidea: Florida auzoa, 99 -1 D  
 OHARRAK: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 13:15ak arte.



**IGNACIO MARIA GONZALEZ SANCHO**  
 "MAMARI"  
 Espero baina askoz lehenago bukatu da bidaia. Bizitzaren azken ordutan, betirako gogoan izango dudun zerbait esan zenidan: "goza ezazu bizitza". Hala egingo dut, osaba. Eskerrik asko.  
**ZURE ILOBA BAKARRA JOSU**  
 Hernanin, 2014ko urriaren 30ean




**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan  
**UGALDE FAMILIAREN PARTETIK**  
 Hernanin, 2014ko urriaren 30ean




**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan  
**TALLERES MITXELENAKO ZURE LANKIDEAK**  
 Hernanin, 2014ko urriaren 30ean




**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 Besarkada bat familiari  
**ZUMITZA TT-KO KIDEAK**  
 Hernanin, 2014ko urriaren 30ean



**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 - Goian Bego -  
 Muxu haundi bat osaba hoberenari  
**JONE ETA UGAITZ, ENEKO, NAGORE ETA JON, LARRUN, LAIENE, IGOIN ETA JARA**  
 Ereñotzun, 2014ko urriaren 30ean



**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 - Goian Bego -  
 Zure alaitasuna eta bizi poza gure eredu izango da.  
**URDANGARIN-IRIONDO SENDIA**  
 Urnietan, 2014ko urriaren 30ean



**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 - Goian Bego -  
 Gure artean hintzen, gure artean hago eta gure artean egongo haiz. Ez diagu inoiz ahaztuko.  
**PEIO, MARITXU ETA IRATI.**  
 Ereñotzun, 2014ko urriaren 30ean



**RAMON PIKABEA UGALDE**  
 - Goian Bego -  
 KEPAREN LAGUNAK  
**XABAT, ARATZ, IKER, GARI, ANARTZ ETA GARI ARRUARTE (EUSKAL PRESO POLITIKOA)**  
 Hernanin, 2014ko urriaren 30ean



**XIII. URTEURRENA**  
**MANU AROZENA IRIBERRI**  
 (1963-2-10 / 2001-10-30)  
 Lehen gurekin, orain guregan, beti maite zaitugunon bihotzetan



**biokbi optika**  
 Antziola, 14  
 Tel.: 943 33 68 86  
 Alejandro Nalbar  
 Gpko Gipuzkoako  
 12/2014 zkm  
**ESKAINNTZA**  
 Beherapena **%20a** Beherapena MONTURA GUZTIETAN  
**ZATOK ETA AUKERA EZAZU GUSTUKOENA**  
 Kristal antireflezanteak betaurako osca eginez. URRIAREN 10etik AZAROAREN 15era  
 \*Promozio hau ez da giltza Berriko bostakaren erabilgarria.




**tripontzi taberna**  
 Sakonak  
**PINTXOKIN BIZIKAZ ENTSEKIDEN** **BOBETAN PLATER BORBINETOZ**  
**ZATOK DESTATZERA!**  
 Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI  
 943 555 724



## IRAGARKI MERKEAK

2 gela alokagai Hernaniko erdigunean. Deitu: 659 363 944

Hernani-Zikuñaga. 100 m2ko pisua salgai. 3 gela eta trastelekua. Kanpoaldera, kalefakzioa eta igogailuarekin. Aparkaleku pribatua. 30 m2ko garajea. 126.000 €. Deitu: 600 595 890

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,....  
 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)